

## Aiherra

Mattin Anchordoquy eta Mikel Harguindeguy txapelkun



Podium2 izenekoak: Ezkerretik eskuinera, Mattin Anchordoquy eta Mikel Harguindeguy txapelkunak, erdian Fred Bereau trebatzailea.

Euskal Herriko Pilota Batzordeak antolatu pilota txapelketaren B mailako finalak Donamartirin iragan ziren joan den ibiakoitzean. Umetxoetan ari diren Mattin Anchordoquy eta Mikel Harguindeguyk txapela ereman zuten 30 eta 23 nagusituz Denek Bat batasuneko Iñaki Etcheverry eta Iban Heguyren aurka. Azpimarratzekoa da Mikelen anaiak aste bat lehenago txapela ereman zuela ere gazteen mailan. Horrela Euskal Herriko txapelkun ditugu Mattin eta Mikel. Biba zuek!

Iztebe eta Allande txapelkun orde Bestalde, beste pare bat finalen genuen ere joan den ibia-

koitzean, gaztetxoetan, Iztebe-Oihenart eta Allande Martinon. Hauek partida eder bat eginik galdu zuten 30 eta 22 Lau Herri batasuneko Ramuntxo Dachary eta Xan Daguerren aurka. Hala ere biba zuek hein hortara heldurik, bestaldian ez da dudarik nagusituko ziretzela. Goresmenak Abarratia pilota batasunari!

### KABALKADA 2 hilabeteren buruan

Astelehen arratsaldean bazterrak ulitxetan ziren pilota plaza inguru hortan,

kabalkadaren antolatzaileek prentsa gomitatua baitzuten kabalkadaren afixa eta programa aurkezteko. Ikusiz zer mugimendua den plaza inguru hortan astearte arratsetan (antzerkia), ostegunetan (makilariak) eta ostiraletan (dantzariak), ez da dudarik parioa irabazi dela Aiherra ez baita berdina orain eta duela bi urte, elkar ezagutzen ez zutenen artean loturak egin baitira, eta herritar anitz buru belarri proiektuan sartu baita. Dena den kabalkada buruilaren 22an eta 29an emanen da. Aitzinetik txartelak erosten ahalko dira. Xehetasunak geroago.



Antolatzaileak kabalkada aurkezten



Ezkerretik eskuinera Fredo Martinon, Iztebe Oihenart-Ebart, J-Claude Larrondo, Allande Martinon pilotari eta